


the balde



June July
ekaina iratze

52

iragana
etorkizun
past to
the
future



52



the balde

antsosain 1
31014 iruñea
t. +34 948 12 19 76
f. +34 948 14 82 78

donostia ibilbidea. 11 behe.
20115 astigarraga
t. +34 943 44 44 22
f. +34 943 33 60 66

www.thebalde.net
info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 686 485 980

publizitatea bizkaian / publicity in bizkaia:
manukleart
+34 946765108 / +34 633438611
bizkaia@thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com · komunikazioa eragin sl
editore / editor: iñigo martinez
zuzendaria / director: koldo almandoz
diseinu burua / head of design: martin etxaui
zuzendari komertziala & publikitatea /
comercial director & publicity: iñigo martinez
publizitatea bizkaian / publicity in bizkaia: manukleart
diseinua / design: martin etxaui, txuma vazquez, iker bereziartua, igor
astigarraga, eneko etxeandia, ekaitz auzmendi, angel aldarondo, ainara gorostiaga
itzulpenak / translations: smiley, 11itzulpen,
ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz villar,
uxeta labrit, aritz branton, agurtzane ortiz, txo!?, angel aldarondo, marcelo diaz,
maga salati, aritz galaraga


ale honetako argazkilariak / photographers this issue:
the balde crew, marcelo diaz, stanley wong, diane arbus, albert manau
komikia / comic: jon juarez
harpidetza orria / subscription page: txo!?
azaleko irudia / cover image: ernst haeckel
aurkibidea / sumary: ernst haeckel
inprimategia / printed at: espacegrafic
lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:

 Aitoru-EzKomertziala-LanEratoririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopianu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo
helbidean zehazten diren baldintza zehatzetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>





Eusko Jaurlaritzako
Kultur sailak diruz
lagundutako aldizkaria

Ian berritzaile,
irudimentsu eta ausartak
egiten dituzula? bidali ieazkiguzu:
Imaginative, provocative and interesting works?
send them to: info@thebalde.net

kale antzerkia lekeitio

Errusia, AEBak, Frantzia eta bertoko hainbat antzerki taldek euren proposamen berritzaileak erakutsiko dizkigute beste behin Lekeitioko kaleetan. Ba al dago antzoki hobirik? La Lupe kantatzen zuen moduan, bizitza antzerki hutsa da, eta guri kalean bizitzea gustatzen zaigu.

www.lekeitiokale.net

street theatre lekeitio

Theatre groups from Russia, the States, France and from here too are going to show us their latest work in the streets of Lekeitio. Is there any theatre better than that? As La Lupe used to sing, life is just theatre, and we like living outdoors.

www.lekeitiokale.net



be yourself

Geroz eta igualagoak gara fisikoki, edo hala erakusten gaituzte, behintzat, iragarkietan. Gorputz mehe eta ilegabeak, sudurtxo egipzianrak, ezpain puztuak, titi borobilak, photoshop-ak luzatutako azal garbiak... Be yourself mugimenduak hori guztia salatzen du oso modu kaletar eta artistikoan.

<http://www.beyourselfmovement.com/>

be yourself

We look more and more like each other physically or, at least, that's what adverts make us think. Thin, hairless bodies, Egyptian noses, wide lips, round breasts, photoshop cleaned skin ... The Be yourself movement criticises this in a streetwise, artistic way.

<http://www.beyourselfmovement.com/>



ATERA
KALERA!

artea eta ikerketa montehermoson

Artea eta Ikerketa egitasmoaren barruan, zortzi proposamen eta zortzi erakusketa non artistek azken hamabi hilabeteotan garatutako lanak ikusi ahal izango diren Montehermo kulturuneko aretoetan. Abuztuak 29ra arte.

www.montehermoso.net

art and research at montehermoso

As part of the Art and Research project, eight individual shows created during the last 12 months, by different artists chosen for this edition. Until the 29th of august in the Montehermoso cultural center.

www.montehermoso.net



**Ikaragarri
gustatzen
zait the way
you talk
to me
maitia!**



**Iruñeko
Hizkuntza
Eskola
Ofiziala**

- | | | |
|-------------|--------------|-------------|
| • euskara | • alemana | • txinera |
| • ingelesa | • gaztelania | • japoniera |
| • frantsesa | • italiera | • arabiera |

KONPAINIA KALEA 6 - 31001
<http://centros.educacion.navarra.es/eoip>
948 20 63 43

galerna
iratxe esnaola



Oporlekuko sargoripean, lau pertsonaia nora ezean, opera prima harrigarri batean. Agustin Zubikarai nobela labur sariaren irabazlea.

elkar www.elkargitaletxea.com/zutazmintzo



IKIMILIKI! Tolosa. Mendia Herria
san esteban 8 31780 Bera 948625403; p'loitegi bidea 12, G17b Iqara Donostia 943224848

SUMMER HYPE



soccer vs surfer

Gure kostaldeko hondartzetatik pasa diguten ohara. Surf-a ez dago modan jada. Surf taularekin hondartzan paseatzera joaten zaren horietakoa bazara, edo okerrago, uretara sartu eta besteen bide erdian jartzeko joera baduzu, jakin ezazu ez duzula zertan gehiago sufritu itxurakeriak eginez. Aurten gera zaitetz etxean fresko-fresko Hego Afrikako mundiala ikusten!

soccer vs surfer

A note they've sent us from our beaches. Surf is no longer fashionable. If you're one of those people who walk along the beach with a surfboard, or, worse still, if you get into the water and then usually get in other people's way, don't worry, there's no need to suffer any more for appearances' sake. Stay comfortably at home this year and watch the World Cup in South Africa at your ease.



txoriliburu

Andrew Zuckerman argazkilararen webgune honek txundituta utzi gaitu. Txoriek gizakiengan sortzen duten lilura ulertzeko, proiektu honek erakusten dizkigun irudiei erreparatzea besterik ez dago. Eta nik... txoria nuen maitee...

www.birdbook.org

birdbook

The photographer Andrew Zuckerman's website has amazed us. To understand the delight that birds give people, you only have to look at the pictures in this project. And I ... loved a bird ...

www.birdbook.org

EHZ jaialdia

Izugarrizko kartela osatu du aurten EHZ jaialdiak: Jim Jones revue, Broken Social Scene, Rinoceros, Berri Txarrak, Bizardunak, Rachid Taha, Mursego, Alpha Blondy... Uztailaren 2, 3 eta 4rako beste eginkizunik ez baduzu, hartu kanping denda, lo egiteko zakua eta txanpu potetxoa (apropos prestatuta dago higiene pertsonala egiteko, beraz, ez duzu aitzakiarik hiru egunotan basurde usainaz ibiltzeko), eta Heletara!


www.ehz-festibala.com

EHZ festival

There's a fantastic lineup for this year's EHZ festival: Jim Jones Revue, Broken Social Scene, Rinoceros, Berri Txarrak, Bizardunak, Rachid Taha, Mursego, Alpha Blondy... If you've got nothing else to do on the 2nd, 3rd and 4th of July, take your tent, sleeping bag and shampoo (everything's well organised from the personal hygiene point of view, so there's no excuse for going back home smelling like a wild boar) and it's off to Heleta!

www.ehz-festibala.com

the balde .net



atzo, gaur eta bihar klik bakarrera!
yesterday, today and tomorrow
in just one click!

the balde zenbakiak oso-osorik ikusteko aukera
izateaz gain egunero topatuko duzu proposamen
berri eta interesgarriak.

Arteziak sail berria gainera parte hartu eta zure
txokoa izan dezakezu.

Check all previous the balde numbers.
New contents everyday.

Be a part of the balde in the new Arzteziak project

adi! thebalde.net webguneak adikzioa sortzen du eta.
be carefull...the balde creates addiction



MIKEL LABOA
BERRI TXARRAK
DETROIT SOUL CITY
MASKARAK ETA ROCK&ROLLA
NORIEGA, WELCOME TO THE JUNGLE
ANARI · R&B ZURIA, LONDRES-GASTEIZ
DELOREAN · SST RECORDS · SIXTY SEXERS
AUDIENCE · THE CRAMPS · MICHAEL JACKSON
MYSPACE ETA DESLOKALIZAZIOA · EUSKAL RAP · KENZAZPI
BIZARDUNAK · THE USKI'S · INOREN ERO NI · AKAUZAZTE
EUREKA HOT IV · ERTZ, 10 URTE · GOSE · ROY LONEY & SEÑOR NO
LOAN · HARROBI · MIKEL URDANGARIN · BLOK
..... ORREAGA 778 · U.K. BILL · VICE PRESIDENTES

+CD GOSE · DELOREAN · HARROBI · U.K. BILL · MOD TIME
..... BRAND NEW SINCLAIRS · THE USKI'S · THE SPARTENS
..... BIZARDUNAK · HOEY & THE MUSSELS · AUDIENCE · PIZTIAR
.....

Entzun! disco-liburua salgai!

Edizio mugatua.

Egin zaituz harpide edo
egizu zure erreserba
entzun@entzun.com-en
edo 948121976
telefonora deituz

15€



- | | |
|--|---|
| 01 GOSE Surik bai? 04'13 | 10 HOEY & THE MUSSELS Free Again 02'42 |
| 02 DELOREAN Deli 04'39 | 11 AUDIENCE Wide Man 04'34 |
| 03 HARROBI Deabruaren zortea 03'07 | 12 PIZTIAR Bafor Bat Hodeizintan 04'48 |
| 04 U.K. BILL Paradis sekretua 02'36 | 13 BERRI TXARRAK Jainko atea 05'23 |
| 05 MOD TIME All the morning 02'41 | 14 SIXTY SEXERS Zyklon Birika 04'13 |
| 06 BRAND NEW SINCLAIRS Love song 04'22 | 15 WILLIS DRUMMOND Haustura (bizi berri bat) 03'51 |
| 07 THE USKI'S Katuek bezala 02'26 | 16 MEMO Lurrunetan 04'07 |
| 08 THE SPARTENS Egusentia 05'34 | 17 PAM 18 R Unek 04'55 |
| 09 BIZARDUNAK Shane MacGowan's Basque Paddys 03'05 | |

D-550/97 disc SGAE

BON APPETIT!

rockumentalak

Zarautzen hirugarren urtez antolatu duten ekimen honek musikarekin zerikusia duten hainbat jarduera bildu ditu hilabeteetan zehar zabaltzen den proposamenean. Kontzertuak, filmak eta argazkiak erakusgai eta gozagai Euskal Herriko Kaliforniatzat dugun herrian. Ez galdu Juxe-ren zuzeneko kontzertuen argazkiak biltzen dituen erakusketa!

www.rockumentalak.com

rockumentaries

In this third edition of this initiative organised in Zarautz, many activities connected with music are to be held during the month. Concerts, films and photo exhibitions and samples in the Basque town we consider to be California. Don't miss Juxes exhibition with photos from live gigs!

www.rockumentalak.com



the gutton club

Delifunart-eko jendearen eginkizun nagusia bizitzaz gozatzeko aukerak badirela erakustea da. Hori da haien misio apostolikoa. Kasu honetan, jateari eta edateari eskainitako argitalpen batekin datoz. Bekatu kapital zapoetsuenaren magalean erortzeko gonbidapena.

www.thegluttonclub.com/

the gutton club

The people at Delifunart's main task is to show us that there are opportunities for enjoying life. That's their apostolic mission. In this case, they've come along with a publication dedicated to eating and drinking. An invitation to fall down the slope of the tastiest capital sin.

www.thegluttonclub.com/



donostiako zinemaldia

Iragari dira aurtengo sail bereziak. Azken urteotan horiek dira gehien interesatzen zaizkigunak. Sail berezi horietan, beste inon ikusi ezin diren film ugari deskubritu dugu. Aurten, Don Siegel-en zinea, eta honez gero gure helburu bihurtu den Doc saila: fikzioa ez diren pelikulei eskainitakoa.

www.sansebastianfestival.com

donostia cinema festival

This year's special sections have been announced. In recent years, they've been the most interesting parts. We've been able to see a lot of otherwise unavailable films in these sections. This year, Don Siegel's cinema and the doc section, which has already become our objective, the offer of non fiction films.

www.sansebastianfestival.com

Erakustaretoa

PAISAIA IDEIA GISA

proiektuak eta proiektzioak: 1960 - 1980

Ekainak 10. Irailak 25

Agnes Denes
Jan Dibbets
Barry Flanagan
Hamish Fulton
Michel Heizer
Richard Long
Walter De María
Anthony McCall
Ana Mendieta
Dennis Oppenheim
Robert Smithson
Gerry Schum
Chris Wesley

Comisaria: Berta Sichel

GANBARA ARETOA

ESKU PAUSATUA DON HERBERT

Ekainak 30. Irailak 4



SK8, K7, JZZ



agroskate

20. urteurena ospatzen du Agroskate mitikoak. Ia ezkutuan eta komunikabide nagusietan inolako promoziorik egin gabe, munduko skate bilerarik onena izatera iritsi da. Baten batek esango du akaso gehiegitxo dela munduko onena dela esatea. Ez dugu esan garrantzitsuena edo prestigio handiena duena denik. Onena dela esan dugu, eta hori ezin digu inork eztabaidatu. Uztailaren 17an... Eguma!

agroskate

The Agroskate myth is celebrating its 20th anniversary. With hardly any publicity in the mainstream media, it's managed to become the best skate meeting in the world. Some people might say it's an exaggeration to say it's the best in the world. We don't mean it's the most important or the most prestigious. We say it's the best, and that's undebatable. 17th July. Go for it!



kassete magazine

Team Evil-ek aldizkari berria kaleratu du. Eta gu, aldizkari junkiak garenez, ezin pasatzen utzi kasete formatuan kaleratu duten magazin eder hau. Eduki ezberdinak eta anitzak (John Woo, errobot sexua, Mf Doom, alpapak...) guztiak kasete kaxa batean bilduak. 500 kopia egin dituzte eta ez da honez gero alerik geratzen.

<http://teamevil.com.au>

kassete magazine

Team Evil has brought out a new magazine. And, as we're magazine junkies, we can't pass by this beautiful magazine, which they've brought out in cassette format. Different, varied contents (John Woo, sex robot, Mf Doom, alpacas ...) all inside a cassette case. They made 500 copies and they've sold out.

<http://teamevil.com.au>

jazzloftproject

1957tik 1965era W. Eugene Smith argazkilaria, Manhattango lore merkatu alboko loft batean, bertatik pasa ziren ehunka jazz joleri 4000 orduko soinu grabaketak egin zizkien eta 40.000tik gora argazki atera. Proiektu hau material hori guztia zaintzeko eta erakusteko sortu zen. Jazz-a maite baduzu eskertuko diguzu gomendioa...

<http://www.jazzloftproject.org>

jazzloftproject



From 1957 to 1965 the photographer W. Eugene Smith took over 40,000 shots of the jazz musicians who recorded more than 4,000 hours' worth of music in a loft next to the Manhattan flower market. This project was created to protect and show all this material. If you like jazz, you'll be grateful for this invitation.

<http://www.jazzloftproject.org>



ernst haeckel

ikusten ez ziren bizidunak ikusi
(eta marraztu) zituen lehen biziduna.




ernst haeckel

the first living being to see
(and draw) invisible living beings.


Atzera begira jarri behar izan dugu beste behin modernitatearen bila. Ia 200 urte bidaiatu dugu iraganera Ernst Heinrich Philipp August Haeckel (Postdam 1834 - Jena 1919) zientzialariarekin topo egiteko. Beste gauza askoren artean, biologoa, filosofoa, medikua, eta, berak marraztutako ilustrazio hauetan ikus dezakezuen moduan, artista zehatza eta talentu handikoa izan zen.

Txantxa dirudien amen, ugaltzen ari da mendebaldeko herrialde "zibiltzatuetan" Darwin-en eboluzioaren teoria eztabaidatzen duten zientzialarien kopurua. Horrek gauza bi gauza frogatzen ditu. Batek, gizakiaren pentsamendurako gaitasunak ez duela beti eboluzionatzen, inboluziorako joera ere baduela. Bestetik, unibertsitate titulu batek ez duela ezertarako balio. Makina bat dira zientzietako titulua izanik mundua Adan eta Evarekin hasi zela sinisten dutenak. Guri igual zaigu bakoitzak zer sinisten duen, baina, aukeran, eta "paranormal" samarrak garenez, nahiago dugu "ekologia" hitzaren asmatzaileak egin zituen marrazki hauek eskaintzen diguten munduan murgiltzea. Ernst Haeckel eboluzioaren jarraitzaile sutsua zen, aukera hura deserosoa eta enadikala zenean. Charles Darwinen teoriak Alemanian sartu zituen gizona izan zen, eta hark hasitako lanari jarraitu zion. Ikerketa ugari egin zuen, eta bere lanen artean garrantzitsuenetakoak 1866an argitaratu zen: *Generelle Morphologie der Organismen*. Darwinen eboluzioaren teorian, ezagunak eta begi bistan ikusi zitezkeen animaliak eta izakiak ziren nagusi. Haeckel-ek izaki txikiago eta ezezagunetara zabaltu zuen ikerketa. Izaki unizelularrak eta plurizelularrak bereizten lehena izan zen, eta marmokak, radiolariak, sinoforoak eta bestelako izaki bizidunak deskubritu eta aztertu zituen. 1.000 espezieetik gora deskubritu, izendatu eta marraztu zituen. Bere lanaren garrantzia eta kopurua izugarria da. Bidaia ugari egin zuen bere ikerketak burutzeko, eta lan zientifiko eta liburu ugari idatzi zituen. Eta ez soilik arlo biologikoan. Aipatu bezala, filosofiaz, gizarteaz eta politikaz ere idatzi zuen. Garafiko erromantizismoaren estetikaarekin bat egiten zuen, baina bere idatziek ikuspuntu aurrerakoia eta ausarta erakusten dute. Bera izan zen "lehen mundu gerra" kontzeptua asmatu zuena, ordura arte "gerra handia" zena izendatzeko, beraz, bazuen geopolitikarako gaitasunik ere, izendapen horrekin bigarren bat izanen zela aurreratu baitzuen. Bere gaitasun liluragarrienetakoak, ordea, paperean islatzen zuen, baina ez hitzen bidez. Ehundaka grabatu egin zituen bere marrazkietan eta akuareletan oinarrituta. Hori-tako asko *Kunstformen der Natur* liburu ederrean bildu zituen. 200 urte igaro diren arren, azken aldian ezagutu dugun lanik garafikideena izanik, ez dugu the balden erakusteko aukera pasatzen utzi nahi izan.




Once more, we have been forced to look back in time in our search for modernity. We have travelled 200 years into the past in order to come across scientist Ernst Heinrich Philipp August Haeckel (Potsdam 1834 - Jena 1919). A man of many talents - he was a biologist, a philosopher, a doctor - and as his illustrations clearly prove, he was an exact and highly-talented artist.


Though it may sound like a joke, the number of scientists in 'civilised' countries that are casting doubt on Darwin's theory of evolution is growing. This proves two things. On the one hand, not only does humanity's ability to think always evolve, but it can also suffer regression. On the other, a university degree doesn't actually mean anything. There are a plethora of academics with university degrees who believe the world began with Adam and Eve. We don't really care what people believe, but, given the choice, and seeing that we are fairly 'paranormal' ourselves, we'd much rather lose ourselves in the world offered by the drawings of the inventor of the word 'ecology.' Ernst Haeckel was a fervent believer of evolution, when that concept was a radical and uncomfortable position to champion. He was responsible for introducing Charles Darwin's theories to Germany, and he carried on his work. He carried out a lot of investigation and one of his most important publications on the topic was his *Generelle Morphologie der Organismen*, published in 1866. Darwin's theory of evolution was mainly populated by well-known animals and beings, visible to the human eye. Haeckel broadened his studies to include smaller and lesser-known creatures. He was the first to distinguish between unicellular and multi-cellular life forms, and he discovered and investigated polyps, radiolarians, micro-plankton and other forms of life. He discovered, named and drew more than a 1,000 species. The importance and amount of the work he did was vast. He travelled extensively in order to carry out his investigations and he was the author of many scientific papers and books. And not only in the field of biology. As previously mentioned, he also wrote about philosophy, society and politics. His work was in the then contemporary style of romanticism, but his writings also betray a progressive and daring viewpoint for the time. He was the first to speak of the concept of 'World War I', until then regarded as the 'Great War'. This demonstrates his grasp of geopolitics, because the name shows he foresaw that there would be a second one. One of his most incredible skills, however, is to be found on paper, but not in words. He created hundreds of engravings based on his illustrations and watercolours. Many of these can be found in his beautiful book, *Kunstformen der Natur*. 200 years may have passed but it's one of the most contemporary pieces of work we have seen lately. The balde couldn't let the chance to show some of his work pass.




Gamochonia. — Tintidierkraken.





Arachnida. — Spinnentiere.





Chiroptera. — Fledertiere.







Siphonophorae. — Staatsquallen.



Copepoda. — Ruderkrebsc.

60. hamarkadan arkitekturaren abangoardia izan zen *Archigram* aldizkaria. Londoneko sei arkitekto gazteek sortu eta bultzatu zuten (Warren Chalk, Peter Cook, Dennis Crompton, David Greene, Ron Herron eta Michael Webb); etorkizuneko arkitekturaren eta diseinuaren inguruko hausnarketa berritzaile eta probokatzailerez hornitu zituzten aldizkariaren orrialdeak. Lehenengo alean, David Greene-k poema batean izkiriaturik utzi zuen Archigram filosofia:



*Arkitektura belaunaldi berri bat argitu behar du gu
forma eta espazio modemoari uko egingo diona
moderna izateari utzi gabe
funtzionalismoari iraina den Bauhaus gainditu behar du gu
altzari kiribil amaigabeak egingo ditugu,
tamaina infinituko puxikak puztuko ditugu,
plastikozko forma berriak asmatuko ditugu,
laugarren zubiko adreiluei ez zaie batere axola...*

Archigram aldizkariaren lehen zenbakia 1961ean atera zen. Paper merkean argitaratua, Green-en poemaz eta Cook, Webb eta beste lagun batzuen proiektu arkitektonikoen manazkiz osatuta kaleratu zen. Aldaketa politiko eta sozialaren garaia zen. Foucault, Barthes, Lévi-Strauss intelektuala garaia zen, Godard, Truffaut eta Felliniren zineak argitzen zituen pantailak, eta alor zientifiko eta teknologikoan aurrerapauso handiak ematen ari ziren. Gagarin kosmonauta espaziora atera zen lehen gizasemearen garaia, sateliteak orbitan zebiltzan, fotokopiagailua asmatu zen, pilula antisorgailua ere bai... Gerra osteko bertsitate lanak amaituta, gizarte aberats eta asetu batean bizi ziren. Eta, ondorioz, honela zioen Cook-ek: "Ingalaterrako arkitektura Europan egiten denari bizkarra emanda bizi den arkitektura ahul eta potrorik gabea da. Modemo etiketa jami bai, baina modemitate horeen filosofia traizionatzen duen arkitektura

egiten dugu". Aldizkariaren lehen zenbaki hark Ingalaterrako arkitekturaren izaera kontserbadorearen aurrean frustrazioa erakusten zuen nagusiki. Lehen aldizkariaren 300 ale saldu ziren arkitektura ikasleen eta estudioetako langileen artean. Arkitektura irakasleek eta adituek ez zioten jaramonik egin argitalpenari. Urtebetera, 2. zenbakia kaleratu zuten, eduki landuagoekin eta paper hoberekin. Urte hartan, Yves Saint Laurent-ek bere Parisiko moda etxea ireki zuen, The Beatles-ek "Love Me Do" kantua kaleratu zuten eta Bob Dylan-ek bere lehen diskoa argitaratu zuen. Ozeanoaren beste aldean, Warhol, Lichtenstein eta Oldenburg-ek erakusketa bat zabaldu zuten *The new realists* izenpean. Archigram-eko arkitekto gazteek Londoneko Contemporary Arts institutuan erakusketa bat prestatzeko gonbitea jaso zuten. 1963an ireki zen Living City erakusketa; hiria organismo bakar eta bizia zela aldarikatu zuten bertan. Ikasle xeble batzuen proposamena zena, bat batean, irakasleen eta adituen interesa piztu zuen, eta *Archigram* aldizkaria erreferentzia bihurtzen hasi zen.

Aldizkariaren izpiritua guztiz baikorra zen. Partaideek iraganari begira bizi zen arkitekturari uko egitea erabaki zuten. Zentzu horretan, futuristen ondorengoak ziren. Aurrerapen teknologikoen abantailek gizarte zoriontsuago bat eraikiko zutela sinesten zuten. Ikuspegi horri umore ingelesa gehitzen zioten. Archigramek arkitektura zirkatzailea aldarikatu zuen beti. Horregatik, iraganeko elementu ugari hartzen zituzten euren lan eta proposamenetan, arkitektura modemoenean txertatzeko. Altzairuari, porlanari eta kristalari elementu victorianoak gehitzen zizkieten modu ironikoan. Hain zuzen ere jolas horrek ematen die Archigram arkitektoen proposamenei hain propioa zaien ukitu retrofuturista. 60. hamarkadaren amaieran, milaka ale saltzen zituzten, eta Isozaki, Hollein, Otto eta beste hainbat arkitekto ezagunen idatziak jasotzen zituen aldizkariak. 1969an, Monte Carlon, aisialdi zentru bat eraikitzeko lehiaketa irabazi zuten. Mediterraneoaren hondoan kupula erraldoi bat eraikitzeko asmoa zuten, zeinean elementu guztiak mugikorrek izango ziren: eserlekuak, argiak, komunak... Espazio eta erabilpen infinituak ahalbidetzea zen helburua. Ez zen sekula eraiki, ordea. Diru arazoek bertan behera utzi zuten proiektua, eta ordura arteko teknokraten aldarikapen baikorra iluntzen hasi zen. Vietnamgo gudak eta Ipar Irlandako egoeraren okertzeak teknologiaren aurrerapenen beste aurpegia erakusten zuten. Archigram-eko partaideen artean ere desadostasunak hasi ziren. 1974an banatu egin zen taldea, eta nork bere bideari ekin zion.

Archigram urbanismoa eta arkitektura aztertu dituen azken mugimendu pobokatzaile eta apurtzailea izan zen. Hala ere, hiru proiektu besterik ez zituen gauzatu: Milton Keynes haur parkea, Londoneko Commonwealth institutua eta Rod Stewart kantariaren enkarguz egin zuten igerilekua. *Archigram* aldizkariaren lehen zenbaki hartan aipatzen zuten Ingalaterrako arkitektura kontserbadorearen ausardia faltaren biktima izan ziren.



archigram: retrofuturistic architecture

The magazine *Archigram* was at the avant-garde of 60s architecture. Six young London architects (Warren Chalk, Peter Cook, Dennis Crompton, David Greene, Ron Herron and Michael Webb) founded and fostered it. The pages of the magazine were full of pieces and reflection on provocative and innovative architecture of the future. In the first issue, David Green set out Archigram's philosophy in poetry:

"A new generation of architecture must arise with forms and spaces which seems to reject the precepts of 'Modern' yet in fact retains those precepts.

We have chosen to bypass the decaying Bauhaus image which is an insult to functionalism.

You can roll out steel – any length.

You can blow up a balloon – any size.

You can mould plastic – any shape.

Blockes that built the Forth Bridge – they didn't worry."

The first issue of *Archigram* was published in 1961. Printed on cheap paper, it was made up of Green's poem and Cook, Webb and other colleagues' architectonic project drawings. It was a time of political and social change. It was the time of intellectuals like








Foucault, Barthes, Lévi-Strauss, filmmakers the likes of Godard, Truffaut and Fellini and in the fields of science and technology huge progress was being made. It was when the cosmonaut Gagarin was the first man in space, satellites began to twirl around the world, the photocopier was invented, as was the pill... Having rebuilt everything from the destruction of World War II, people lived in a rich and satisfied society. And this led Cook to proclaim English architecture "has turned its back on what is happening in Europe and is weak and spineless. We classify it as modern but we betray the philosophy that is the foundation of this modern architecture". The first issue of the magazine clearly reflected the frustration caused by the conservative nature of English architecture.

The first issue sold 300 copies, mainly to students of architecture and workers in studios. Experts and teachers of architecture didn't pay the slightest bit of attention to the publication. A year later, the second issue was published with more crafted content and on better quality paper. That same year Yves Saint Laurent opened his Paris studio, the Beatles released "Love Me Do" and Bob Dylan recorded his first album. On the other side of the ocean, Warhol, Lichtenstein and Oldenburg opened an exhibition called *The new realists*. The young architects at *Archigram* were invited to set up an exhibition at the Institute of Contemporary Arts in London. The exhibition *Living City* opened in 1963. They proclaimed the city a unique living organism. What was at first a proposal by rather eccentric students suddenly attracted the interest of professors and experts alike, and the magazine *Archigram* was soon being regarded as being cutting edge.

The spirit of the magazine was one of total positivity. The architects involved decided to refute all architecture that was anchored in the past. In this sense, they were the fathers of the futurists. They believed that the advantages provided by technological advance would help create a happier society. To this point of view, they added liberal dollops of British humour. *Archigram* was always in

favour an architecture that teased. That's why many elements of the past were always included in their work and proposals. They ironically added Victorian elements to their furniture, cement and glass. That very characteristic is what gives *Archigram* architecture that retrofuturistic touch.

By the end of the 60s the magazine was being sold in the thousands and often included articles by the likes of the prestigious architects Isozaki, Hollein, Otto and others. In Monte Carlo in 1969, they won a competition to build a leisure centre. They wanted to bury a giant underground dome by the Mediterranean where all the elements (seats, lights, toilets...) would be set on wheels and thus be movable. The objective was to enable infinite use of space. It was never built. Funding issues caused the project to be scrapped and the positive technocratic climate in their favour began to darken. The war in Vietnam and the worsening situation in the North of Ireland showed a darker more evil side to technological progress. The members of *Archigram* soon began to disagree on certain things and the group split up in 1974. Each member struck out on their own path. *Archigram* was the last provocative and groundbreaking architectural movement to research and investigate architecture and urbanism. Even so, they only ever developed three projects: a children's playground in Milton Keynes, an exhibition at the Commonwealth Institute in London and a swimming pool for the singer Rod Stewart. They were the victims of the very same lack of daring inherent in the conservative English architecture that they condemned in the first issue of *Archigram*.





syd barrett

Pink Floydek "Wish you were here" bere omenez plazaratu zuen. Bowiek bere "See Emily Play" eta "Arnold Layne" abestiak grabatu zituen. Baina, hainbat musikariri bezala, Barrett abeslari, gitara-jotzaile eta konpositoreari ustezko istorio erromantiko bat dagokio.

Pink Floyd sortu zuen eta, 1968 arte, taldea Londonen Undergroundeko talderik abangoardistarena zen. Orduan, drogez jota, lekua utzi zion David Gilmouri. Bere kabuz bi disko egin zituen. 1971n, erotuta, Londonetik atera, sorterrira, Cambridgera, itzuli, amaren etxean sartu eta han bertan hil zen 2006an.

Beraz, istorioa ez da batere erromantikoa: bere sufrimendua eta maite zutenen lamitasuna islatzen ditu. Guztiontzat, talentu handi bat goizegi galdu zen. Baina, kulturazaleak garelako, Barretten legenda tristea baino bere musika axola zaigu.

Ziur aski legenda beltzagatik berriro ere, sarritan pentsatzen da Barretten musika osoa psikodelikoa zela; drogak, fantasia eta gitara elkartzen diren abesti zatatsiak. Egia da Barrett oso gitarr-jotzaile sormenezko eta herritzailea zela, eta Pink Floydekin egin zuen musika asko horrelakoa izan zen, baina, tamalez, musika estilo horretatik gutxi grabatu zuten.

Taldearekin grabatu zuen disko bakarrean, "Piper at the Gates of Dawn"en, abesti gehienak pop kutsukoak dira, hiru salbuespen handi hauekin: "Astronomy Domine", "Lucifer Sam" eta "Interstellar Overdrive". Garaiko lekukoan arabera, taldearen kontzertuak ildo horretan zebiltzan. Antza denez, Londonen arrakasta handia zuen Pink Floydek musika abangoardista honekin eta, Londonetik kanpo, publikoak, taldea gorrotatzen zuen.

Berriro ere, eta zalantzarik gabe legenda ditxosoagatik, oro har sinesten da Barretten lan onena amaitu zela taldeari utzi egin zionean. Baina errealitatea oso ezberdina da. Bakarrik egin zituen bi albumak zoragarriak dira.

Lehenengoa, "The Madcap Laughs" ("Erotoak barre egiten du") taldekide ohi Roger Waters eta David Gilmourek produzitu zuten. Bigarrena, "Barrett", David Gilmour eta taldekide ohi Rick Wrightek. Antza denez, Barretten egoera psikologikoagatik grabaketak oso zailak ziren. Abesti batzuetan, musikariek oinarri musikala grabatu zuten eta, gero, Barrettek gitara eta ahotsa gehitu zion. Gehienetan, Barrettek grabatu zuen eta gero beste musikariek egin zezaketena egin zuten. Kasu bakar batean talde osoak grabaketa egin zuen aldi berean, "Gigolo Aunt" ("Izaba gigolo") abestian.

Hala eta guztiz ere, disko ederrak dira. Melodiak eta instrumentazioa hurbiltzen eta inguratzen zaizkigu. Doinu gehienak epelak eta goxoak dira. Ahotsa xarmagarria da. "Dominos" abestiaren gitara solo aldrebesa izugarri polita da eta, antza, lehenengo hartzean asmatu zuen. Letra batzuek sinpleak ematen dute, eta gero surrealistik bihurtzen dira. Beste asko zuzenean surrealistikak dira. Nolabait, bi disko hauekin Barrett ezagutzen dugula pentsa dezakegu, nahiz eta, ziur aski, osotasunean inork ez zuen ondo ezagutu.

Gaur egun ere, "The Madcap Laughs" eta "Barrett" entzun ditzakegu plazer handiz.

Pink Floyd wrote "Wish you were here" about him. Bowie covered two of his songs, "See Emily Play" and "Arnold Layne". But, as with so many musicians, there's a supposedly romantic legend about this singer, guitarist and composer.

He formed Pink Floyd in 1964 and, until 1968, it was one of the leading groups in the London underground. Then, damaged by drug abuse, he was replaced by David Gilmour. He made two solo records. In 1971, having lost his sanity, he left London and returned to his hometown, Cambridge, and to his mother's house, where he lived until his death in 2006.

So, in fact, his legend isn't at all romantic: it reflects his suffering and the suffering of those who loved him. For all of us, a great talent was lost far too early. But for those of us who enjoy cultural things, Barrett's music is far more interesting than his sad biography.

It's probably his dark story, once more, that makes some people believe that all of his music was psychoedelic: loud songs that bring together drugs, fantasy and guitars. It's true that Barrett was a highly creative and innovative guitar player, and that Pink Floyd made a lot of psychedelic music, but, unfortunately, they didn't record much of that type of music.

The only LP they recorded with him, "Piper at the Gates of Dawn", is all pop songs with three great exceptions: "Astronomy Domine", "Lucifer Sam" and "Interstellar Overdrive". According to contemporary sources, their concerts were made up mostly of this latter type of sound. Apparently, this avant-garde music was hugely successful in London but, outside the capital, audiences hated it.

Once more because of his wretched legend, it is often believed that Barrett's work finished when he left the group. But that's far from the truth. His two solo albums are marvelous.

The first one, "The Madcap Laughs", was produced by his old group mates Roger Waters and David Gilmour. The second, "Barrett", David Gilmour and another group-mate, Rick Wright, produced. It seems that Barrett's psychological condition made the recording sessions very trying. On some songs, the other musicians recorded the backing track and then Barrett added the guitar and voice. On most songs, Barrett recorded and then the other musicians filled in as best they could. All of them recorded together on only one song, "Gigolo Aunt".

In spite of all this, they're fine records. The melodies and instrumentation get close to you and envelop you. Most of the sounds are warm and make you feel good. Barrett's voice is full of charm. The reverse guitar solo of "Dominos" is incredibly beautiful and, apparently, he recorded it in a single take. Some lyrics seem simple and then turn surreal. Many others are just surreal, no two ways about it. Somehow, you get the sensation that you know Barrett by listening to these two records, although probably nobody really knew him well.

You can still listen to "The Madcap Laughs" and "Barrett" today and enjoy them immensely.

Lan berri bat argitaratzen duen bakoitzean hazi egiten da Cherry Boppers. Buenafuenteren saioan egotea nahiko ez, eta munduko dj eta ekoizle esanguratsuenak bildu dituzte disko berria osatzeko. Nahasketa lan honetan All Good Funk Alliance, Lack Of Afro, R de Rumba, DJ Floro, Fundación Tony Manero, Watch Tv eta Makalak parte hartu dute. Funk, rumba eta elektronikaz betetako festa amaigabea.

The Cherry Boppers grow in stature each time they release something new. It wasn't enough for them to appear on Buenafuente's programme, they found the world's most important DJ and producer to complete their latest record. All Good Funk Alliance, Lack Of Afro, R de Rumba, DJ Floro, Fundación Tony Manero, Watch Tv and Makala have all taken part in this collection. Funk, rumba and electronica make up this endless party.



The Cherry Boppers
Remix it again!
Keep on Boopin' records 2010



Lcd Soundsystem
This is happening
DFA 2010

James Murphyk Michael Jacksonek dantzalekuan utzitako lekua bete du. Energiaz betetako lan indartsua da *This is Happening*, dance, punk eta funk doinuak nahasten ditu. Aurreko lanetatik aldendu gabe dator eta lehen diskoko energia nabari daiteke ("Tribulations" bezalako kantuen). *Drunk Girls* aurkezpen single-arekin gelditzen gara, garagardoa airera bota eta euri alkoholikoan dantza eginez.

James Murphy has taken up the dance floor Michael Jackson left behind him. *This is Happening* is full of energy; dance, punk and funk are all combined. On the same lines as the record before, and the first record's full of energy (on songs like "Tribulations"). *Drunk Girls* is the first single and it's suitable for throwing your beer into the air and dancing in the alcoholic rain.

Lan gastronomikoa argitaratu du Makalak. Latin, ska nahiz boogaloo doinuak bildu ditu lau abestik osatutako zazpi hatzbeteko biniloan. Txarly Brownnek egin dion euskarri ikusgarriak disko eramangarri bihurtu du, gainera. "Ska con Boogaloo", "Meneito Magistral" edo "Vamos a Comer" abestiak europako dantzalekuak astintzen ari dira. Euskal Herriko elkarte gastronomiko guztietan ere entzun beharko lirareke.

Makala has brought out a gastronomic piece of work. He's put together four songs with latin, ska and boogaloo on this seven inch vinyl. With Txarly Brown's attractive help, it's also become portable. "Ska con Boogaloo", "Meneito Magistral" and "Vamos a Comer" are shaking the dance floors of Europe. It should be possible to hear these songs in all the gastronomic societies in the Basque Country.



Makala
Vamos a comer
Lovemonk 2010



Askoren artean /
Amongst many
Kitsune Maison # 9
Kitsune 2010

Club eszenan ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira bilduma hauek. Batez ere, indie eta elektronika eszenan. Parisko labela daraman ekimenak Jamaica, Crooners eta Yelle-n abesti bemiak aurkezten dizkigu 18 kantuk osatutako lan honetan. Etorbizuneko doinuak dira hauek, eta europako areto eta jaialdi cool-enetan entzun daitezke. Topikoetan erori gabe, elektronikaren eszena bemiaren bultzatzaile nagusi bilakatu dira bilduma hauek.

These compilations have become an indispensable point of reference on the club scene. Above all, on the indie and electronica scenes. The work of this Paris based label has given us the latest songs by Jamaica, Crooners and Yelle on this 18 song collection. These and the sounds of the future and they can be heard in all Europe's coolest parties. Without wanting to be cliched, these compilations have become the main movers on the electronic dance scene.

Municheko dj eta ekoizle den Tobias Kirmayer-en diskoetxea da Tramp records. 60 eta 70eko vintage soinuak duten jazz, funk eta soul abestiak berreskuratzen dabil azkeneko urteetan, eta, horretarako, hemen aurkezten digun *Movements* bezalako ekimenak sortzen ditu. Diskoa bitxia da berez; eta Ernesto Cardenal-en "Grito Pidiendo" bezalako abestiek leku pribilegiatua merezi dute bildumazaleen apaletan.

Tramp Records is Munich DJ and producer Tobias Kirmayer's record company. In recent years he's recovered vintage jazz, funk and soul from the 60's and 70's, and this is why he's given us *Movements* and other such initiatives. It's a special record; and songs like Ernesto Cardenal's "Grito Pidiendo" deserve a special place on all collection shelves.



Askoren artean /
Amongst many
Movements 3
Tramp records 2010



Delorean
Subiza
True Panther / Mushroom
Pillow 2010

Deloreanek lehen diskoa argitaratu zuenean, kontzertu bat antolatu nien Oñatin. Ez zen inor gerturatu. Lau katu egon ginen kontzertuaz gozatzen eta haien doinuekin dantzan. Nola aldatu diren gauzak! Estatu Batuetako eszenan indartsu sartu dira, eta gure herrietan nekez ikusi ahal izango ditugu berriz, AEBetako hirietan jendez betetako kontzertuak eskaintzen dihardutelako. Kantu berriek dantzalekurako pop argitsua dakarte.

When Delorean brought out their first record, I organized a concert for them at Oñati. Nobody came. There were a handful of us there enjoying the music and dancing. How things have changed! They're now highly successful in the States, where they sell out their concerts in every city, so it's going to be hard to see them here again. The new songs are bright, danceable pop.

www.globalfunk.es.com

18 jun 2010 / 23:00
Global Funk Party: Dj 6 (Belgium)
@ Bullitt Groove Club Bilbao

19 jun 2010 / 23:00
Global Funk Party: Dj 6 & Arka djs
@ Le Bukowski Donostia-San Sebastian

20 jun 2010 / 24:00
Global Funk Party: Dj 6 & Makala djs
@ Be Bop Donostia-San Sebastian

skunkfunk www.skunkfunk.com
the balde www.thebalde.net
gszteba
demode

IZAN BILBOTARRAK BAINO HARROAGOA DEBALDE DENA ORDAINDU EZAZU!

LADINAMOK MILA HARPIDE BEHAR DITU
etorkizuna bermatzeko
(edo bestela, 1000 aldiz harpidetuko den norbait topatu).

DAME PA'
GASOLINAI



Oraindik aldizkaria ezagutzen ez baduzu bota iezaiozu
begirada bat sareko bertsioari: www.ladinamo.org/ldnm

